

H_{LH4}

2019/2020

Zuzenketarako Koaderno

Izen-deiturak:

Ikastetxea:


Taldea:

Herria:

Data:

**Euskal
Hizkuntza
Gaitasuna**

LHko 4. maila





Jarraibideak

Probak bi zati ditu: bata irakurriaren ulermenarena, eta bestea, idazmenarena.

- Probako **lehenengo zatian** zenbait testu irakurriko dituzu, eta horiei buruzko galdera batzuei erantzun beharko diezu.

Galderak mota batekoak baino gehiagokoak dira. Galderetako batzuek lau erantzun dituzte aukeran, eta haietan zuzena dena aukeratu eta haren ondoan dagoen letra biribil batez inguratu behar duzu. Adibidez:

Zenbat biztanle ditu Iruñeak?

- A. Bartzelonak bezainbat.
- ☒ B. 200 000, gutxi gorabehera.
- C. Milioi bat.
- D. Zenbait milioi.

Erantzuna aldatzea erabakitzen baduzu, ezabatu **X** batekin lehen erantzuna eta erantzun zuzena biribil batez ingura ezazu, ondoko adibide honetan egin den bezala:

Zenbat biztanle ditu Iruñeak?

- A. Bartzelonak bezainbat.
- ☒ B. 200 000, gutxi gorabehera.
- C. Milioi bat.
- ☒ D. Zenbait milioi.

Beste galdera batzuetan, aldiz, eskatuko dizute erantzuna idazteko puntuak dituen gunean:

Zein da Iruñeko tokirik ezagunena?

.....

Galdera batzuk errazak dira eta beste batzuk zailagoak. Galderaren bat ulertzen ez baduzu, besteei erantzuten segitu ahal duzu, eta geroago saiatu erantzun gabe utzitakoa egiten.

- Probako **bigarren zatian** idazlan bat egin beharko duzu, eman zaizkizun jarraibideei kasu eginez.



Proba hau egiteko 60 minutu dituzu.

Printzearen haserreak

Printzeak oso umore aldakorra zuen. Umore onean zegoenean denekin jolasean eta musuka ibiltzen zen, baina bat-batean arrazoirik txikienak haserre bizian jartzen zuen. Eskura zuena lurrera botatzen eta hausten hasten zen, eta ingurukoak iraindu eta jotzera ere iristen zen batzuetan. Ondokoak printzearen haserrea noiz piztuko beldur bizi ziren umore aldaketa haiek bat-batean etortzen baitzitzaizkion. Erregina eta erregea ere kezkak jota zeuden.



– Zerbait egin behar dugu seme honekin... Erresuma bere gain hartu beharko du noizbait eta ordurako bere buruaren jabe izaten ikasi beharko luke –esaten zioten elkarri larriturik.

Baina urteak aurrera joan ahala, haurrarekin batera, haserreak eta haserretzean eragiten zituen triskantzak ere handitzen zihoazen. Erresuma hartako azti, maisu, hezitzaile eta laguntzeko prest agertu ziren guztiak eta printzea bera ere saiatu ziren izaera hura aldatzen, baina ezin.

Printzea nazkatuta zegoen horrela bizitzeaz. Ustekabeko haserreak kontrolatzen ikasi behar zuen nola edo hala. Izaera petral hark ingurukoak beldurtzen zituen, eta ondorioz, benetako lagunak izateko orduan traba sortzen zioten. Bere haserraldien beldur, zerbitzariak, lagunak, animaliek,... denek ihes egiten zioten; baita gurasoek ere askotan. Hain bihurtzen zen gorrotagarria umorea aldatzen zitzaionean... Haserrealdia pasatu ondoren, gau osoa ematen zuen esna, triste, nahigabeturik,...



Gau ilun haietako baten ondoren, honela hitz egin zien gurasoei:

– Zoriontsu izan nahi dut, zuek bezala, besteak bezala: lagunak izan, jolastu, eta nire umore aldakor honen jabe izan.

Gurasoek, erresumako baliabide guztiak agortuta zituztenez, ingurukoetan zabaldu zuten mezua. Printzea laguntzea lortzen zuenarentzat sari ederra eskaini zuten.

Berriz ere maisu, azti eta hezitzaile pilo bat joan ziren errege-erreginen gaztelura. Inork ez zuen hobekuntza nabarmenik lortu ordea. Etsiak jota zeuden.

Goiz batez errementari xume batek jo zuen gazteluko atea.


– Printzearentzako erremedioa dakart! –adierazi zion atezainari.

Berehala eraman zuten errege-erreginen aurrera. Errementariak medailoi bat atera zuen zorrotik eta eskura eman zien. Jakin-minez hartu eta behatu zuten.

Kobrez egindako medailoi arrunt bat zen. Larruz egindako uhal batetik zintzilik. Harriduraz begiratu zioten biek.

– Baina, zer da hau? –esan zuen erregek haserre—. Tresna bitxi eta ederrenek ez dute ezer lortu eta zuk medailoi arrunt hau ekartzeko ausardia izan duzu?

– Lasai errege jauna, begiratu ongi irudiei eta idatzita dagoenari eta ulertuko duzu –azaldu zion errementariak.



Alde batean eguzkiaren irudia eta esaldi bat zituen: *“Egunaren argia gauak eramaten du”*.

Beste aldean, berriz, ilargi bat zizelkatua zuen eta beste esaldi bat ere: *“Gauaren iluntasuna egunak argitzen du”*.

Eta medailoiaren ertzean honakoa zegoen idatzia: *“Eta printzearen umorea eguna eta gaua bezala aldatzen da”*.

Printzeari erakutsi ziotenean, ideia gustatu eta handik aurrera medailoia lepoan eramatea erabaki zuen. Haserrea zetorkiola sumatzen zuenean, medailoiaren bi aldeak begiratu, ertzean idatzita zegoena irakurri eta lasaitzea lortzen zuen.

Eguna iritsi zitzaionean, errege ona eta maitatua bihurtu zen. Eta hil artean horrenbeste laguntzen zion medailoia eraman zuen lepotik zintzilik.

Ekialde eta mendebaldeko ipuinak liburutik (moldatua).

1. Zer da “umore aldakorra”?

- A. Umore onez egotea.
- B. Sutan jartzea.
- C. Bat-batean umorez aldatzea.
- D. Aldiro goxo jartzea.

2. Zergatik zeuden batez ere errege-erreginak kezka jota?

- A. Inork ez zekielako zer gaixotasun zuen printzeak.
- B. Printzea ez zelako bere buruaren jabe.
- C. Aldiro eskura zuen guztia bota eta apurtzen zuelako.
- D. Printzea gau eta egun haserre zegoelako.

3. Baina urteak aurrera joan ahala...

- A. Printzearen umorea hobetzen hasi zen.
- B. Printzeak berdin jarraitzen zuen.
- C. Printzea bere buruaren jabe egin zen.
- D. Haserreak eta triskantzak handitzen zihoazen.

4. Printzea...

- A. nazkatuta zegoen horrela bizitzeaz.
- B. haserreak kontrolatzen ikasten ari zen.
- C. bere izaeraren beldur zen.
- D. bere izaera hobetzen ari zen.

5. Printzeak...

- A. ingurukoak pozik zituen.
- B. benetako lagunak zituen.
- C. bere burua kontrolatzen ikasi behar zuen.
- D. gurasoak pozik zituen.

6. Idatzi 1etik 4ra dagokion zenbakia, ezkerreko eta eskuineko esaldiak lotzeko.

	Zenbakia	
Printzeari...	3	(1) ingurukoak beldurtuta zituzten.
Printzearen umore aldaketek...	1	(2) printzea laguntzen saiatu ziren.
Erresumako jakitun guztiak...	2	(3) denek ihes egiten zioten.
Errege-erreginak...	4	(4) oso kezkatuta zeuden.

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Bat ere ez edo bat zuzen.
1	Bi edo hiru zuzen.
2	Laurak zuzen.

7. Zer esan zien Printzeak gurasoei gau ilun baten ondoren?

.....

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	Testuan bezala (edo antzera) azaltzen du: "– Zoriontsu izan nahi dut, zuek bezala, besteak bezala: lagunak izan, jolastu, eta nire umore aldakor honen jabe izan".

8. Gurasoek, zoriontsu izan nahi zuela esan zienean...

- A. inguruko erresumetara zabaldu zuten berri ona.
- B. etsituta, ezinbestean amore eman zuten.
- C. harrituta, atsekabe handia harrapatu zuten.
- D. konponbidea lortzeko saria eskaini zuten.

9. Zergatik haserretu zen erregea?

- A. Tresna ederrenek ere ez zutelako ezer lortu.
- B. Errementaria gizon eskolagabea zelako.
- C. Medailoia kobrezkoa baino ez zelako.
- D. Medailoia ez zitzaiolako behar adinako konponbidea iruditu.

10. Zer zuen medailoia lepotik jartzeko?

- A. Kobrez egindako katea.
- B. Urrezko katea.
- C. Zilarrezko katea.
- D. Larruz egindako uhal bat.

11. Errege-erreginak saria eskaini zuten printzeari laguntzen zionarentzat. Adierazi X batez egia ala gezurra den horren ondoren gertatutakoa.

	EGIA	GEZURRA
Errementari xume batek gazteluko atea jo zuen.	X	
Errementariak medailoi bat zekarren.	X	
Medailoia urrezkoa zen.		X
Erregea medailoia ikustean haserretu zen.	X	

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Bat ere ez edo bat zuzen.
1	Bi edo hiru zuzen.
2	Lau erantzunak zuzen.

12. Non zeuden idatzita esaldiak medailoian?

.....

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	Medailoiaren alde banetan eta ertzean.

13. Printzeak medailoian idatzita zegoena irakurri eta lasaitzea lortzen zuen. Zergatik?

- A. Eguzkia eta ilargia lasaigarriak zirelako.
- B. Kobrea lasaigarria delako.
- C. Esaldiak irakurtzeak pentsarazi egiten ziotelako.
- D. Medailoia magikoa zelako.

14. Printzea errege egin zenean...

- A. errege kaskarra izan zen.
- B. errege maitatua izan zen.
- C. izendatu eta berehala hil zen.
- D. Ez zen inoiz errege izan.

Jolas egin berdintasunean!

Hona hemen berdintasunean jolasteko ideia batzuk:

1. Jolasa askea da. Gustuak pertsonak bezain ezberdinak dira.
2. Ez dago bereziki "mutilentzako" edo "neskentzako" den jostailurik. Jostailuak norberak aukeratzen ditu. Panpin eta sukaldetxoak, patinak eta baloiak..., denak dira ezinbestekoak neskatoentzat eta mutilentzat.
3. Ez dago bereziki "mutilentzako" edo "neskentzako" den kolorerik. Koloreak norberak aukeratzen ditu, ez diezagutela alde aurretik kolorerik ezarri.
4. Gomendagarria da jolas eta jostailu askotarikoak erabiltzeko aukera izatea, lasai jolasteko aukera ematen dutenak eta jarduera fisikoa eskatzen dutenak.
5. Bilatu parte hartzean berdintasuna bultzatzen duten jolasak.
6. Baztertu jostailu, jolas eta bideo-joko bortitzak, ez baitituzte arazoak modu positiboan lantzen.
7. Iragarki batzuetan irudi oker bat agertzen da. Iragarki batzuetan mutikoek espazio komun guztia betetzen dute jolasean eta neskatoak espazio txiki batera mugatuak daude. Iragarki batzuetan mutilek nola jolasten duten begira agertzen dira neskatoak, edo alderantziz.
8. Gomendagarriak dira neskailak eta mutikoak aipatzen diren eta presente dauden liburuak, jolasak, bideo-jokoak eta jostailuak.
9. ...



15. Zer adierazten du “Jolas egin berdintasunean!” izenburuak?

- A. Denok modu berean jolastu behar dugula.
- B. Denok jolas berdinetan jolastu behar dugula.
- C. Neskek zein mutilek dutela berdin jolasteko aukera.
- D. Gaztetxo guztiek denbora berdina eman behar dutela jolasten.

16. Zergatik esaten da 3. puntuan “Koloreak norberak aukeratzen ditu, ez diezagutela alde zaurerik ezarri”?

- A. Kolore batzuk itsusiak direlako.
- B. Denoi kolore berdinak gustatzen zaizkigulako.
- C. Normalean sexu bakoitza kolore jakin batekin lotu ohi dugulako.
- D. Sexu bakoitzak bere gustuko koloreak dituelako.

17. Nahiz eta jolasa askea izan...

- A. Jostailuak eta koloreak gustuaren arabera aukeratu behar ditugu.
- B. Jostailu batzuk bereziki mutilenak dira eta beste batzuk neskenak.
- C. Kolore batzuk bereziki mutilenak dira eta beste batzuk neskenak.
- D. Jostailuak eta koloreak generoaren arabera aukeratu behar ditugu.

18. Zein jostailu eta jolas gomendatzen ditu testuak?

- A. Batez ere lasai jolasteko aukera ematen dutenak.
- B. Batez ere jarduera fisikoa eskatzen dutenak.
- C. Mutilentzako jolas batzuk eta neskentzako beste batzuk.
- D. Neskak eta mutilak elkarrekin jolasten dutenak.

19. Nolako jostailuei edo jolasei egin beharko genieke uko?

.....

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	"Jostailu, jolas eta bideo-joko bortitzak" aipatzen ditu behintzat.



<http://www.e-faro.info> (moldatua)

20. Zer adierazten du irudiak?

- A. Zaila dela migratzaile izatea.
- B. Migratzaileak oreka jolasak gustuko dituela.
- C. Haizea bortizki astintzen ari dela migratzailea.
- D. Migratzailea erortzearen beldur dela.

21. Nork esaten ote dio migratzaileari "Ez ahaztu zure arbasoen ohiturak"?

- A. Bere arbasoek.
- B. Harrera egin dion herriak.
- C. Migratzaileak berak, bere bihotzak.
- D. Ametsetan entzuten dituen hitzak dira.

22. Zure ustez, zergatik dute migratzaileek “bihotza erdibitua”?

- A. Gaizki tratatzen ditugulako gure herrialdeetan.
- B. **Beren ohiturak gorde baina berrietara egokitu behar direlako.**
- C. Beren jaioterrira itzuli nahi dutelako.
- D. Bihotzak bi zati dituelako.

23. Zertarako agertzen da “Lagun diezaiekegu?” galdera testuan?

- A. Emakumea ez erortzeko.
- B. **Guk nola lagundu pentsarazteko.**
- C. Etorkinek arazorik ba ote duten zalantza pizteko.
- D. Haizeak bortitz jotzen duelako.

24. Zertarako sortuko zuten bineta hau?

- A. Haizeak migratzaileak bultzatzen dituela erakusteko.
- B. **Migrazioaren zailtasunak uler ditzagun.**
- C. Migratzaileak laguntzarik gabe moldatzen direla erakusteko.
- D. “Txiste” bat egiteko migratzaileen inguruan.



Idazmena

25. Orain, zu idazle...

Umore txarrari aurre egiten laguntzeko

Ezagutzen al duzu ipuineko printzearen jarreraren antzekoa duen norbait? Nola lagunduko zenioke?

Idatz iezaiozu **gutun** bat. Gogoratu:

- Idatzi ongi eta txukun.
- Bereizi testua paragrafoetan.
- Errespetatu ortografia arauak.
- Eta ez ahaztu puntuazio-markak erabiltzea!



Idazten hasi aurretik, ongi pentsatu zer eta nola adierazi. Hona hemen galdera lagungarri batzuk:

Nori idatziko diozu?, Zer gertatzen zaio?, Nork jasotzen ditu bere izaera edo jarreraren ondorioak?, Emanen al diozu aholkurik?...

Hurrengo laukian ideia labur batzuk apuntatu ahal dituzu jarraibide gisa erabiltzeko:

Ez da ezinbestekoa
hemen idaztea.

Amor

***Zuzentzaileak edo irakasleak
bete beharreko puntuazio taula***

	Puntuazioa 0, 1, 2 edo 3
Aurkezpena eta ortografia	
Kontakizunaren koherentzia	
Zuzentasuna eta hiztegiaren aberastasuna	
25. itema – Guztira	

Idazlana zuzentzeko irizpideak (Lehen Hezkuntzako 4. maila)

Zuzenketa lanean ondoko alderdietan eman behar da puntuazioa: egokitasuna eta aurkezpena, koherentzia, kohesioa eta zuzentasuna. Alderdi bakoitzari 0tik 3ra bitarteko puntuazioa emanen zaio, ondoko irizpideen arabera:

	0 puntuazioa	1 puntuazioa	2 puntuazioa	3 puntuazioa
Aurkezpena eta ortografia	Oso eskasa Lehen Hezkuntzako 4. mailarako. Idazkiaren aurkezpena txarra da eta akats ortografiko asko ditu.	0 puntuazioaren (puntuazio eskasa) eta 2 puntuazioaren (puntuazio egokia LHko 4. mailarako) arteko maila du. 2 puntuazioko eskakizunetako hiru bete ditu.	Lehen Hezkuntzako 4. erako maila egokia erakutsi du, honako eskakizun hauek bete dituelako: ▪ <u>Txukun idatzita dago</u> (ez dago zirrimarrarik...) ▪ <u>Letra</u> argia eta irakurterraza. ▪ <u>Marijak</u> ongi zehazturik daude. ▪ <u>Ortografia</u>: testu laburrak direnean (10-15 lerro), bost akats, gehienez (tz/ts/tx/z/s/x gaizki idatziz gero, horietako 5 akats bakartzat hartuko dira); zortzi akats, gehienez, testuak luzeagoak direnean.	Lehen Hezkuntzako 4. mailako curriculumeko ebaluazio irizpideen arabera, bikaintasuna erakutsi du. 2 puntuazioko lau eskakizunak bikain bete ditu; ortografia akats gutxi egin du.
Kontakizunaren koherentzia	Oso eskasa Lehen Hezkuntzako 4. mailarako. Ideiak loturarik gabe aurkezten dira, modu desegituratuan. Edukiari dagokionez, jauziak eta justifikatu gabeko hutsuneak daude.	0 puntuazioaren (puntuazio eskasa) eta 2 puntuazioaren (puntuazio egokia LHko 4. mailarako) arteko maila du. 2 puntuazioko eskakizunetako lau bete ditu. Mezua ulergarria bada ere, ez da osoa.	Lehen Hezkuntzako 4. erako maila egokia erakutsi du, honako eskakizun hauek bete dituelako: ▪ <u>Egitura argia</u>: eskutitzaren berezko egiturari heltzen dio. ▪ <u>Paragrafo kopurua</u>: hiru paragrafotan, gutxienez, banatu du testua. ▪ <u>Jarraipen tematikoa</u>: ideiak ondo antolatu ditu, ez ditu errepikatzen, aholkuak ondo antolatu ditu. ▪ <u>Perpausak</u>: perpausak ideia osoak adierazten dituzte. ▪ <u>Joskera</u>: paragrafoak zein perpausak ongi loturik daude (lokailuak, menderagailuak, puntuazioa). ▪ Aholkuak eskutitzaren helburuarekin lotuta daude. ▪ Ez du ataza ongi ulertu eta printzeari idazten dio baina lehen aipatutako ezaugarriak betetzen ditu.	Lehen Hezkuntzako 4. mailako curriculumeko ebaluazio irizpideen arabera, bikaintasuna erakutsi du. 2 puntuazioko eskakizun guztiak bikain bete ditu. Horretaz gainera, idazlanak ezaugarri hauek ditu: argitasuna, hiztegi aberastasuna, testua arintzen duten hizkuntza baliabideak erabiltzea (<i>orduan</i> ; <i>geroago</i> ; <i>hala ere</i> , etab.; ez dago alferrikako errepikapenik; ez da erabat aurreikusteko modukoa), ez dago jauzirik edo hutsunerik.
Zuzentasuna eta hiztegiaren aberastasuna	Nabarmen eskasa Lehen Hezkuntzako 4. mailarako. Perpausak ez dira zuzenak. Ez ditu bereizi kode idatzia eta ahozkoa: hitz egiten duen bezala idatzi du. Gramatika akats dezente egin ditu.	0 puntuazioaren (puntuazio eskasa) eta 2 puntuazioaren (puntuazio egokia LHko 4. mailarako) arteko maila du. 2 puntuazioko eskakizunetako hiru bete ditu.	Lehen Hezkuntzako 4. erako maila egokia erakutsi du, honako eskakizun hauek bete dituelako: ▪ <u>Sintaxia</u>: idazlanean erabilitako sintaxi egiturak zuzenak dira. Ongi eraturiko mendeko bi perpaus erabili ditu, gutxienez. ▪ <u>Aditzak</u>: oro har, zuzen erabili ditu (denbora eta aspektua). ▪ <u>Komunztadura</u> akats batzuk egin ditu (ergatiboa, pluralgilea...). ▪ <u>Deklinabidea</u>: kasu markak ongi erabili ditu, oro har. ▪ <u>Erregistroa</u>: argi eta garbi bazterrean utzi ditu lagunarteko eta ahozko hizkuntza. ▪ <u>Lexiko</u> egokia erabili du (adjektiboak, adberbioak, hitz eratorriak, hitz elkartuak...).	Lehen Hezkuntzako 4. mailako curriculumeko ebaluazio irizpideen arabera, bikaintasuna erakutsi du. 2 puntuazioko eskakizun guztiak bikain bete ditu. Horretaz gainera, ez du gramatika akatsik egin, lexiko aberatsa baliatu du eta sintaxia menderatzen duela erakusten duten zenbait esamolde erabili ditu. Testua oso ongi idatzita dago, kontuan izanik Lehen Hezkuntzako 4. mailan gaudela.

Jarraian, aurrez azaldutako irizpideen arabera zuzendutako zenbait testu jaso dira. Idazlan bakoitzari eman zaizkion puntuazioez gain, zuzenketen deskripzio zehatzak ere ikus daitezke. Bistan denez, ez da prozedura mekanikoa. Zuzentzaileak ariketa kasuz kasu baloratu du, adierazleen arabera. Kasu askotan nabarmena da adierazlea betetzen den ala ez. Beste batzuetan, ordea, ez da horren agerikoa, eta malgutasunez baloratu behar da nahitaez.

1. adibidea

Ni lagunduko nioke nire lagunari:
deituen dela. Beti, umore txarra dago,
ez naiz du inorrek inon egon, ez naiz
du golasdu.

Ni lagunduko nioke bere etxera
toatea, berearekin golastea egun guztietan
berearekin golasen laguntzea gauza
postibak esatea festetan nire lagunak
eta bere denak elkarrekin egotea.

Eta inoiz bakarrik egotea beti
gauza bat gertatzen bazara berearekin
egotea.



Amaiera

1. adibidea

Zuzentzaileak edo irakasleak bete beharreko puntuazio taula		Puntuazioa 0, 1, 2 edo 3
Aurkezpena eta ortografia		1
Kontakizunaren koherentzia		1
Zuzentasuna eta hiztegiaren aberastasuna		1
25. itema – Guztira		3

Aurkezpena eta ortografia

- Aurkezpena: Kaskarra, zirrimar batzuekin.
- Letra. Ulergarria da baina txukuntasun faltarekin.
- Marjinak. Ezkerreko marjinari eutsi dio. Eskuinekoa ez du zaindu.
- Ortografia: “ts”, eta “tz”rekin izan ditu arazoak.

Alderdi honen balorazioa: Txukuntasun falta eta ortografian egin dituen akatsengatik puntu 1 bakarrik lortu du.

Kontakizunaren koherentzia

- Egitura. Ez du gutunaren egitura baina eskatzen zaiona betetzen du.
- Paragrafo kopurua. 3 paragrafoetan banatu du testua.
- Bilakaera tematikoa. : Lagunari laguntzeko proposatu dituen ideia bakoitza paragrafo batean bildu ditu.
- Perpausak. Perpausak ondo bereizita daude, puntuazio-zeinuekin.
- Joskera. Perpausak eta paragrafoak lotzeko ez du testu-antolatzailearik erabili.

Alderdi honen balorazioa: Antolamenduari dagokionez, hobetu badaiteke ere, proposamenak ondo daude eta ulerkorra da. Horregatik, puntu 1 dagokio.

Zuzentasuna eta hiztegiaren aberastasuna

- Sintaxia. Gaztelaniazko egitura jarraitu du gehienetan.
- Aditzak. Aditzak ez ditu erabat zuzen erabili, baina aditz-denborak modu egokian erabili ditu. Aditz-aspektuan izan ditu akatsak.
- Komunztadura. Oro har ez dago komunztadura akatsik.
- Deklinabidea. Ergatiboa modu kaskarrean erabili du.
- Erregistroa. Hitz egiten duen bezala idatzi du.
- Lexikoa. Ez du lexiko zailik erabili, bere mailarako oinarritzkoegia.

Alderdi honen balorazioa: Orokorrean deklinabide eta aditzen erabilera ez da zuzena izan eta honek idazlanaren maila jaitsi du. Horregatik, dagokion puntuazioa 1 da.

2. adibidea

Kaixo, Zure umore aldatzeko ez dira egokiak, pixket
kontrolatzen saiatu bear zara bestela orrela jarraituko
duzu betiko, Kontrolatzen ikasten baduzte askas
obeto egongo zara poliki-poliki lortuko duzu
zutez konfiantza eduki bear duzu gu ere
zutez konfiantza dugu eta badakigu lortu
al duzula, lortzean ez dituzu ~~in~~ bapateko
umore aldatzeko atokiko eta oso pozik
egon alko ezate.

Amaiera

2. adibidea

<i>Zuzentzaileak edo irakasleak bete beharreko puntuazio taula</i>	Puntuazioa 0, 1, 2 edo 3
Aurkezpena eta ortografia	1
Kontakizunaren koherentzia	1
Zuzentasuna eta hiztegiaren aberastasuna	2
25. itema – Guztira	4

Aurkezpena eta ortografia

- Aurkezpena. Txukuna da, zirrimarrik gabe. Itxura garbia du.
- Letra. Letra ulerterraza eta garbia da.
- Marjinak. Orokorrean ongi eutsi die marjinei.
- Ortografia. Ortografia akats gehienak “h”-aren erabilera okerragatik izan dira

Alderdi honen balorazioa: Aurkezpena txukun samarra da baina ortografian egin dituen akatsengatik 1 puntu dagokio.

Kontakizunaren koherentzia

- Egitura. Egitura zuzena da hasieran baina galdu egiten du azkenean (azkeneko agurra falta da).
- Paragrafo kopurua. Ez ditu paragrafoak banatu, eskatzen den testu motak gubxitenez 3 paragrafo eskatzen ditu.
- Bilakaera tematikoa.: Ematen dituen aholkuak ez ditu bata bestearekin lotzen.
- Perpausak. Esaldi batzuk nahiko luzeak dira eta batzuetan ez daude sintaktikoki ongi egituratuta.
- Joskera. Ez ditu lokailuak erabili.

Alderdi honen balorazioa: Antolamendu aldetik asko hobetu daiteke. Hala ere, testua ulerkorra da. Horregatik, 1 puntu dagokio.

Zuzentasuna eta hiztegiaren aberastasuna

- Sintaxia. Ez da erabat okerra baina gaztelaniazko hurrenkera sintaktikoa erabili du gehienetan.
- Aditzak. Aditzak ondo erabili ditu.
- Komunztadura. Ez dago komunztadura akatsik.
- Deklinabidea. Ez du deklinabide akatsik.
- Erregistroa. Bere adina kontuan hartuta egokia da. Hala ere hobetu daiteke.
- Lexikoa. Ez du lexiko jasoegirik erabili, bere adinerako egokia da baina hitz batzuetan akatsak izan ditu (“bapatean”, “pixkat” eta alko”)

Alderdi honen balorazioa: Orokorrean, lexiko jasoegirik erabili ez badu ere, baldintza ondo erabili du eta ez ditu akats larriak. Horregatik, 2 puntu dagozkie.

3. adibidea

Kaixo

!!

Kaixo, zer moduz zaudete?
pasatu zaizu haserrea?

Bueno ez ba zaizu pasatu
umare txarrik txiste bat
kontatuko diut: Egun batean Jainito
bere amarekin zebilen. Jainitori
gozoki bat erori zitzaion, bere ama
konturatu eta ez arteko esan
zion. Baina halako batean Jainitoren
aitona erori zen, eta bere ama
altxatzen laguntzeko esan zion
Jainitori. Baina Jainitok hau esan
zion amatori: ez ama lurrean
dauden gauzak ez direla artu behar.

Espero dut zore haserrea lasaitu
denik bestela, ez dakit
zer gehiago gustatuko zitzaizuke.
Espero dut lasaitzea!

Agurr!!

Amaiera

3. adibidea

<i>Zuzentzaileak edo irakasleak bete beharreko puntuazio taula</i>	Puntuazioa 0, 1, 2 edo 3
Aurkezpena eta ortografia	2
Kontakizunaren koherentzia	2
Zuzentasuna eta hiztegiaren aberastasuna	2
25. itema – Guztira	6

Aurkezpena eta ortografia

- Aurkezpena. Txukun idatzita dago. Ez dago zirrimarrarik.
- Letra. Argia eta ulerterraza da.
- Marjinak. Ezkerraldeko marjinei eusten badie ere, eskuinaldean idazteko lerroak gainditzen ditu zenbaitetan.
- Ortografia. Akats ortografiko gutxi ditu. “h” duten hitzekin izan ditu akats nabarmenenak..

Alderdi honen balorazioa: Aurkezpena nahiko txukuna da baina izan dituen akats ortografikoengatik, atal honetan 2 puntu dagozkio.

Kontakizunaren koherentzia

- Egitura. Oso ondo antolatutako idazlana da. Eskutizaren egitura errespetatuz paragrafo bakoitza ideia batekin lotuta dago.
- Paragrafo kopurua. 3 paragrafo bereizi ditu hala ere goputzeko ideia guztiak paragrafo berdin batean idatzi ditu.
- Bilakaera tematikoa.
- Perpausak. Perpausak modu zuzenean osatuta daude.
- Joskera

Alderdi honen balorazioa: Idazlanaren mamia oso modu koherentean kontatzeagatik, eta bere adina kontuan hartuta, edukiak landu dituen moduagatik, 3 puntu eman zaizkio.

Zuzentasuna eta hiztegiaren aberastasuna

- Sintaxia. Sintaxi zuzena. Perpausen egitura nahiko egokia eta ulerterraza.
- Aditzak. Oro har, ongi erabili ditu. Aditz-denborari dagokionez desegokia izan da. (“zitzaizuke”)
- Komunztadura. Ez dago komunztadura akatsik.
- Deklinabidea. Ergatiboarekin akatsen bat izan du.
- Erregistroa. Narrazioari dagokionez, erregistro egokia erabili du.
- Lexikoa. Lexikoari dagokionez, bere adina kontuan hartuta, egokia izan da.

Alderdi honen balorazioa: zuzun idatzita egon arren edukien aldetik hobetu daiteke. Horregatik 2 bakarrik puntu lortu ditu.

4. adibidea

Kaino zer mada? Badak, t nazkatuta gongo
zarela jarraera horetaz eta nik ideia batzuk
ekartzen dizkizut, jarraera hori hobetzeko.

Lehenengo sudurretik arnastu eta gero
ahotik bat. Segurua lagunduko dizula.

Ere zure usain gutukoera haserre zauderean
betin eta berrira usaindu. Edo zure musika gutukoera
edo lasaiera entzun. Horrela lasaituko zara.

Eskerrik asko entzutenazatik, ez badizu lasaitzen
hiru gauza horiek, berrira beste gutun bat
bidali eta nik hasika naiz pentsatzen. Zorian-
tsu izango zara.

Agur eta besarkada handi
bat bidaliko dizut ere!!!


Amaiera

4. adibidea

<i>Zuzentzaileak edo irakasleak bete beharreko puntuazio taula</i>		Puntuazioa 0, 1, 2 edo 3
Aurkezpena eta ortografia		3
Kontakizunaren koherentzia		3
Zuzentasuna eta hiztegiaren aberastasuna		2
25. itema – Guztira		8

Aurkezpena eta ortografia

- Aurkezpena. Txukuna eta zirrimarrarik gabea.
- Letra. Argia eta irakurterraza.
- Marjinak. Oso ondo zehaztu ditu.
- Ortografia. Ortografia akats bakarra dago. ("hadi")

Alderdi honen balorazioa: Lau baldintzak aise bete ditu. Beraz, dagokion puntuazioa 3 puntukoa da.

Kontakizunaren koherentzia

- Egitura. Gutun egitura zuzena erabili du.
- Paragrafo kopurua. Idazlanaren egitura egokia da.
- Bilakaera tematikoa. Bilakaera tematikoa hautematen da. Jarritako gaiaren inguruan idatzi du,
- Perpausak. Ondo eta modu zuzenean osatu ditu.
- Joskera. Testu-antolatzaileak, erabili ditu perpausak eta paragrafoak lotzeko eta kontakizunari koherentzia emateko.

Alderdi honen balorazioa: bost baldintzak bete ditu. Beraz, dagokion puntuazioa 3 puntukoa da.

Zuzentasuna eta hiztegiaren aberastasuna

- Sintaxia. Ergatiboan akats bat izan arren, oso maila ona duela erakutsi du.
- Aditzak. Aditzak eta aditz-denborak zuzen erabili ditu. Aldi bakar batean izan ezik.
- Komunztadura. Akatsik gabea.
- Deklinabidea. zuzen erabili du.
- Erregistroa. Erregistro egokia erabili du.
- Lexikoa. Hiztegi zailegirik erabili ez badu ere, adina eta testuingurua kontuan hartuta, hitz egokiak erabili ditu.

Alderdi honen balorazioa: Sei baldintzak bete ditu akats gutxi batzuekin. Beraz, dagokion puntuazioa 2 puntukoa da.